

DIAGNOSIA 2. FASEA

8. eta 9. ERANSKINAK

PROIEKTU OSAGARRIAK

- ZEHAR-LERROEN HIZKUNTZ TRATAERA
- EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO EKINTZAK

GELA BARRUKO EREMUA: KUDEAKETA PEDAGOGIKOA

PROIEKTU OSAGARRIAK

Ohiko programetarik at maila guztietarako antolatzen diren proiektu komunak dira proiektu osagarriak; hau da, arlo arteko lotura edota lotura bertikala (maila, ziklo, etapa artekoa) eskatzen dutenak. Hamaika proiektu txerta daitezke izenburu horren azpian: irakurketa sustatzeko planak, Agenda 21, gosearen aurkako kanpainak, bizikidetza-planak, kulturartekotasuna eta abar. Gisa horretako proiektuak bi ardatz nagusiren inguruan aztertuko ditugu:

ZE HAR-LERROEKIN LOTURIKO EKINTZEN HIZKUNTZ TRATAERA

- **Zehar-lerroekin loturiko ekintzen hizkuntz trataera** *(8. eranskina)*

Helburuak

Atal hau behatzearen helburua da ekintza horiekiko hizkuntz irizpideak ikastolako hizkuntz helburuekiko koherentzia finkatuta dauden aztertzea da.

Pausoak

Atal hau betetzeko, informazioa eskatuko diegu etapetako koordinatzaileei eta arloko irakasle bati. Horretaz gain, zuzendaritzarekin eta etapetako koordinatzailearekin bildu eta informazio hori osatu egingo da.

EUSKARA eta EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO EKINTZAK

- **Euskara eta euskal kultura bultzatzeko ekintzak** *(9. eranskina)*

Helburuak

Atal honetan, euskara sustatzeko ekimenak (euskararen eguna, motibazio-kanpainak eta abar), euskal literaturaren inguruko ekintza bereziak (idazleak geletan, bertsolaritzako egitasmo osagarriak eta abar) edo euskal kulturaren errotuta dauden usadioak ezagutze eta lantze aldera antolatzen diren ekintzak (inauteriak, Santa Ageda, Olentzero eta abar) aztertuko dira. Ekintza horiek hausnartutako plangintzaren bitartez bideratu behar direnez, plangintza hori ziurtatzea da atal hau aztertzearen helburua.

Pausoak

Galdetegi hau Euskaraz Biziko dinamizatzaileak beteko du.

❖ Ikastolan ZEHAR-LERROEN plangintzarik badago?

Bai, ikastola osorako plangintza egituratua dugu. Bai, etapa-mailako plangintza egituratua dugu. Ekintzak egiten dira, bai, baina plangintza garbirik gabe.

❖ Zehar-lerroen inguruko proiektuak ikastolaz kanpoko erakundeekin elkarlanean garatzen dira maiz. Kasu horietan euskarari emandako trataera (jasotako dokumentazioan, erakundearekiko harremanetan, ikasleek egin beharreko lanetan...) dugu aztergai.

Azaldu azken bi ikasturteetan burututako ekintzak ondoko taulan.

URTEA	EKINTZA (labur azaldu)	PARTAIDEAK (mailak, zikloak...)	LANKIDETZA ERAKUNDEA	EUSKARAREN TRATAERA

Ikastolan EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN inguruko jarrerak eta/edo erabilera bultzatzeko proiektuen plangintza

Ekintzak planifikatzeko irizpiderik badago? Zein?	
Etapamailako ekintza egituratuak al daude?	
Etapen arteko ekintzak bultzatzen dira?	
Ekintza horiek, berez, komunikazio-egoera esanguratsuak dira. Nola antolatzen dira horiek ikasleen hizkuntz erabilera bultzatzeko?	